

ERABAKIA, 2017ko IRAILAREN 4koa, TEKNIKARI ESPEZIALISTA (MEKANIKA -III. TALDEA) LAN-POLTSA ZABALTZEKO PROBAK EPAITU BEHAR DITUEN EPAIMAHAIARENA, HAUTESPEN PROZESUAREN HURRENKERA PROPOSAMENA EGITEKO.

Deialdiaren seigarren eta zazpigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakia), "Teknikari espezialista (Mekanika -III. Taldea)" lan poltsa handitzeko hautaketa prozesurako epaimahaiak jakinarazten du:

LEHENENGOA.-Hautaketa prozesuaren fase guztiak amaiturik, Epaimahaiak behin betiko balorazioa eman du.

BIGARRENA.- 6.5 oinarriak dio ezen hautagaien sailkapen-hurrenkera, hain zuzen, oposizio-fasean, merezimenduen lehiaketan, eta hala badagokio, euskararenean eskuratutako puntuazioen baturak ezarriko du. Berdinketa izanez gero, honako irizpide hauen arabera finkatuko da hurrenkera:

1. Oposizio fasean puntuazio handiagoa lortu duenaren alde.
 2. Bigarren ariketan (praktikoan) puntuazio handiena lortu duenaren alde.
 3. Lehengo ariketan (teorikoan) puntuazio handiena lortu duenaren alde.
 4. Lehiaketa fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
 5. Lanbide esperientzia atalean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
- Irizpide horiek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, eskaria iritsi eta erregistratu zeneko datari erreparatuko zaio.

Epaimahaiak batu ditu puntuazioak, eta berdinketa ez dira gertatu.


HIRUGARRENA.-Zazpigarren oinarriarekin bat etorrira, hautaketa prozesua behin amaiturik, epaimahaiak prozesua gainditu duten lehiakideak ordenatuko ditu, bakoitzak guztira lortutako puntuazioaren arabera, bakoitzak atal bakoitzean zenbat puntu atera dituen ere zerrendan zehaztuz. Gero UPV/EHUko gerenteari emango dio zerrenda, prozesua ebatzen duen behin betiko erabakia eman dezan. Epaimahaiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsioa aurkez dakiok UPV/EHUko gerenteari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Proposamen horren aurkako errekurtsioaren oharra web orrian argitaratuko da.

Argitaratze honek pertsona interesatuei eginiko jakinarazpen moduan balioko du.

Honi lotu zaio epaimahaiak egindako hurrenkera proposamena (I. eranskina) eta ikus ahal izango da Lan-eskaintzen atarian.

Bilbo, 2017ko irailaren 4a.

Epaimahaiko idazkaria



Eneko Ukar Arrien